# Katazka

Zenbakia 65

EZKAURRE



# EDITORIALA

*Zergaitik mendian gaudenean bestearekiko harremanak errezagoak dira? Gure ingurua aldatzen da, baina baita zerbait gehiago ere, gure barnea aldatzen da. Honegaitik askotan mendian egindako lagunak adiskide gogorrenak dira.*

*Baina aldaketa hau gurekin itzultzen da herrira edo han gedatzen da? Igokeran bai daramagu herrian hartutako ohiturak, bizioak, eta abar, baina itzultzerakoan gutxitan dakargu egun hortan lortu dugun* **"ispiritua"** *eta dakargunean herriko giroak zapaltzen du.*

*Esandakoa egia bada nola jarraitzen du gure elkarteak? Alpino Tabira zutik dirau antolatzen duen irteerari esker. Mendira, eskiatzera, edo urteroko jaietara joaten garenean, ikusiz, ezagutuz, jakinez baskide hori ez dela zenbaki bat baizik eta ezagun bat, lagun bat. Gero eta gehiago gara eta badakit zaila dela eskatzen dudana, baina ezezagun talde batek ez du osatzen elkarte bat. Ahalegindu behar gara elkar ezagutzen, eta badakizue, toki egokiena,* **MENDIA.**

# SABIN URNIETA,

# ALGO MAS QUE UN NUMERO

El Alpino, nuestra sociedad, no es contraria a los abatares de la vida. Los que alternamos a menudo nuestra sociedad oimos decir con orgullo a los directivos, somos tantos, en lo que va de año hemos tenido tantas altas etc.

Al final uno saca la conclusión, que por mucho que digamos lo contrario, estamos metidos con mayor o menor intensidad en el engranaje de la maquinaria de este mundo y al final, incluso en el Alpino, acabamos siendo números.

Llega el día de la Asamblea y los números se repiten en cuanto se refieren a nosotros. Tantas altas, tantas bajas, somos tantos. ¿Quienes son las altas? ¿Quienes son las bajas? No importa, somos un resta y un suma y sigue.

Pero hay múmeros que llaman nuestra atención, capicuas, todos iguales etc, números que tienen un algo especial y que hablamos de ellos al verlos. En el Alpino ocurre lo mismo números de socio que llaman nuestra atención, en este caso el número **UNO**.

**EL UNO**, quizás el más significativo de nuestra sociedad,corresponde a Sabin Urnieta **«Txistu»**. Falleció hace un par de meses y dentro del Alpino era para todos **ALGO MAS QUE UN NUMERO** y merecedor de un par de líneas como recuerdo en nuestra revista aunque sólo sea para recordar al que reconstituyó la sociedad tras la guerra, a quién estuvos 23 años en la dirección del club, a quién alegró con su txistu tanto las fiestas del Alpino como las de Durango, al que tantos consejos nos daba a los que ibamos pasando por la directiva, en fin al conocido por todos nosotros.

Sabin, la tarde de tu funeral fué expléndida, y me recordaba lo que habías disfrutado en tu juventud en tardes como éstas en el monte, experiencias que reflejastes en los libros del Alpino.

Esa tarde, la última que estuvistes entre nosotros, tus compañeros chistularis te despedían con el **Agur Jaunak**, tus compañeros mendigoizales, con el corazón entristecido.

Iñaki Oleaga

GURE BEARRA
BENETAKOA DA

bar
Guria

ETA GURE ALAI-ALDIA
ZINTZOA

BODAS, COMUNIONES
REPORTAJES

foto sol

MATERIAL FOTOGRAFICO

# EL FIRE
# LA VIA MAS BONITA
# DE RIGLOS

**...tus oidos escuchan a las hojas, a los insectos, rocas, murallas, estaciones entre montañas...**

Sería Octubre, despues de salir de la chopper mire con deseo al Mallo Fire, me quede con ganas de hacer esa via que va por el filo de aquel amasijo de patatas y barro, que llevan a la punta"**no importa**"

Es otoño y mientras paseo, las hojas caen. En primavera, mientras paseo, las hojas brotan y otra vez estoy aquí.

Esta mañana, fría, no estoy nervioso, me siento como fuera a hacer algo muy habitual y necesario, como comer o beber, dormir o pasear, voy a escalar; una vía.

Difícil, expuesta, aérea, larga pero ante todo una vía bonita, rodeada de Alimoches y buitres, de Grajos o Gorriones, o alguna estrella en las noches claras.

Como buenos amigos dividimos la vía en tres partes.




**SPIGOLO SUDESTE**
**VIA RABADA-NAVARRO MDsup 330 metr. Sostenida,expuesta sobre conglomerado de calidad variable.**

**Ascensión realizada el II-4-85 por Txus, Andoni, Jaime.**

En el primer largo el frío de la mañana, un «**bolo**» que se parte, el único clavo tan lejos, me hacen llegar a la reunión un tanto agradecido a la Virgen de las siete manos (patrona de los escaladores).

Más arriba cambiamos las cuerdas y Andoni nos guía entre panzas y travesías delicadas que nos alejan del suelo, de la tierra ocre, de los almendros y olivos, del agua y de la comida.

Soy afortunado, pues estoy rodeado de maestros que saben el camino y siempre dicen que es sencillo, cuentan algún chiste fácil, yo canto. Cada cierto tiempo paramos y charlamos, sin prisa, disfrutanto la perspectiva de la panza siguiente o el aspecto de las travesías increibles que buscan el buen camino.

Los Alimoches vienen a curiosear, nuestro aspecto multicolor mientras me doy cuenta de que si; de que somos unos marginados, inmóviles a muchos metros del suelo en una reunión, atados a dos buriles sin poder ni aquí salirnos de los esquemas que nos dicta esta sociedad.

Empiezan a caer primero unas tímidas gotitas, luego unas ya más descaradas. Estamos dos largos por debajo de la cumbre, Txus en un arriesgado ansamble nos deja en una de las puntas del Fire, en la "**no importa**".

Una punta con alguna sabina unas piedras y un nombre en el aire, **FIRE**.

Jaime.


AXPE • HAIZEA • BEGIAK
JUVENTUD, ALEGRIA Y AMBIENTE

# NUEVO PRESIDENTE DE LA FEDERACION VIZCAINA

El 16 DE Abril se hicieron los primeros traspasos por parte de Antón García al nuevo presidente José María Pradera.

Antón, tras varios años ocupando los máximos cargos federativos y habiendo realizado una ardua labor, había pedido al término de su mandato el relevo. Tras dos convocatorias sin candidato, por fin a la tercera presentó la Agrupación de la Margen Izquierda de la Ría al amigo Pradera, hasta ahora presidente del Arroletza de Burceña.

El traspaso se ha hecho con toda la colaboración del presidente saliente. En el nuevo y amplio equipo de Pradera permanece la eficiente secretaria Begoña Garay, lo que garantiza la continuidad administrativa.

Pradera es hombre joven, con energía y montañero desde la adolescencia. Siempre fiel a su club, del que ha sido presidente los últimos siete años.

En su día se inició en la escalada y esquí. Es un experto en **«concursos de perros de pastor»**, siendo jurado desde el primer campeonato en Oñate. Este bonito tema relacionado con la montaña le ha enriquecido y proporcionado una experiencia en organizaciones deportivas.

Tiene varios proyectos, entre ellos la mejora interior del refugio de Gorbea, dándole un ambiente más agradable.

Antón le ha dejado en herencia dos labores importantes, que a él le hubiera gustado realizar. Una, el viejo proyecto de Javi García Rodrigo, expresidente del Padura, que consiste en la mejora de recogida de aguas de la fuente de Elorria, proyecto monumental para la misma y renovación de la conducción de agua al refugio. (Recordaréis que ya hace muchos años sacamos unas pegatinas para recaudar dinero para el proyecto, pero fué muy escaso y le costó unos miles de pesetas personalmente a Javi por los trabajos previos realizados).

La otra labor consiste en proporcionar a los usuarios de Atxarte un refugio o cobertizo digno, pues son muchas decenas de montañeros, principalmente escaladores, quienes pernoctan por allí los fines de semana.

José María Pradera tiene una labor interesante por delante, en la que no le va a faltar trabajo y todos debemos prestarle nuestra colaboración, para que no ocurra, como se vislumbra, que los montañeros huyen de la tan criticada **«poltrona»**.

Jesús de la Fuente.


AITAMA articulos de regalo

Andra Mari, 18 - Tel. 681 00 61
DURANGO

ARTICULOS DE REGALO — BOLSOS — PARAGUAS
LISTAS de BODAS

# EZEZAGUNAREN BILA

"Zerk bultzatzen zaitu mendira joateko? Erotuta egon behar dozue izerdia modu horretan alpergaltzeko! "Honako hauek kaletik entzun daitekez **«kirol nagusia»** praktikatzen dogunean. Hau kaleko gizonaren aldetik. Bestalde mendizaleak ixildu, farre egin edo **«ketedenporkulo»ko** bideak ditu arazotik urtetzeko.

Beste giro serioagoan bere teori filosofiko pertsonalak azalera ataratzen ditu, batzungan hain filosofikoak izan ez arren. Baina azken baten danok zerbaitek mendietako garaietara bultzatzen gaitu: poteak alde batera ixtea-badaiteke zabalduenetarikoa izatea-, leku barriak ezagutu, norberaren barnea bilatzea... danak zentzu baten edo bestean topikoak diran erantzunak. Danok ezagun danetik ataratzen gaituenaren bila goazela esaten ausartuko nintzake: hau da, **«ezezagunaren bila»**.

Filosofia fisikara jeistea nahi izango neuke. Denpora edota diru gitxi dogunean gure inguruetako mendi lerden, sendo eta ederretara hurbiltzen gara baina... inertziaz. Modalitate barri bat gure mendietan praktika daigun proposatzeko usteaz natorkizue, mendi ezzezagunetan oso praktikatua baita eta emaitza ezin hobeekin gainera. Lekua ezagutzen ez dogunean beti modu batez edo bestez mapa alde batean ixten dogu eta **instintoari** ekiten dautsogu. Baina etxetik gabiltzanean, zergatik jarraitu behar doguz betiko bideak? Ez ahal da aberatsagoa mendi horren zoko guztiak ezagutzea?.

Behin alboetako mendi ezagun batera alde izkutu batetik igotzeko era baegoala esan euskuen, eta bide barriak jarraitu nahian harantz abiatu ginan. Zenbat eta gorantz jo bide zanaren arrasto gitxiago, baina mendiari aurre egitea erabaki genduan instintoaren eraginean: **«Hortik izango ete da?... badaiteke... baina badaezpadan erditik joango gara gero gehiegi jeitsi ez dagigun»**. Zenbat eta mendiaren barnean gehiago sartu: **«Kanpa bat zirudiena... Kristoren horma bada! Ba eskumatik... ez ezkerretik... hobe erditik»**. Zenbat eta gorago aukeratzeko posibilitate gitxiago eta larritasun antzeko bat sortzen hasten jaku buelta erdi emon beharrean aurkituko ete garean. Larrialdia. Hemendik aurrera gure lehenagoko hipótesia gorputza hartzen doala esan daiteke... Ezjakina. Eta azkenean **«uf! urten dogu»**. Gozamena. Orduan jezarrita, mendiaren beste neurri bat edo balore barria aurkitu dogula konturatzen gara. Mendi ezagun baten alde izkutu bat kanporatu dogu, mendiaren barrenean sartzerakoan... mendia sentitu egin dogu (larrialdian, ezjakinean baina azken batean gozamenean). Ez dakigu bidea handik izango zan ala ez eta ez gaitu larriegi kezkatzen bez, bina mendi hori lehenengoz **«ikusi»** egin dogula sentitzen dogu.





AUTO - ACADEMIA
LUCAS

deportes
Sarasketa
(Armeria Especializada)
Teléf. 681 12 85 DURANGO

Horrelako ibilbideak topatzeko ez da behar gauza handirik, nahiz eta asko ibilia izan, bakarrik hiru gauza behar dira: buruan imaginazioa, kezka bihotzean eta gauzak, lekuak ezagutzeko gogo biziak: ezaugarri honexek euki ezkero hamaika bariante desberdin egin daikeguz nahiz eta biderik ez aurkitu (hobe!).

Badakit une batean arriskutsua suertatu daitekena, eta hor daiza nire mezua instintoari jarraitu behar dautsogunean dinodanean: **instinto razionala** erabiliz **«ebidentziaren»** experientzia eta intuizinoa lortzen dogu. Beraz une bakoitzean aukeratu egin behar dogu (hori ahal da askatasuna?) posibilitate artean buelta emoteko aukera dagoelarik.

Baina lurralde honetatik galdurik zabiltzanean eta zure oinpean ahuntz koro - tzak ikusten badituzu, zure instintoa(**"animala"** behintzat) hain txarto ez doana pentzatzen hasi zeinkez.

Txabi



Tabira Ardandegia

Ardoak

Tabira kalea, 22

- Tel. 6811457

DURANGO

# EXISTENTZIALISMOA—ASKATASUNA

**«The answer, my friend, is blowing in the wind»**

**Bod Dylan**

Zer dela eta deitzen gaitu mendira nahiz eskalada egiten ibiltzea?. Nire iritzia ematea nahi nuke, ikus dezazuen zer deritzagun eskaladoreak honi buruz.

Alpinismoa kirol eta teknologia gainetik biziera mota bat dugu, mendian finkatzen den biziera. Baianan biziera mota hori ez da biziera arrunt bat, izatearen kontzepzio traszendental bat baino. Alpinista batentzako,eskalatzea, mendian egotea ez da eguneroko ohitura bat, ez da bizitzea bizitzeagatik, bizibarnea zertzea da, berarekiko bilakapena aurkitzea, berarekiko esentzia bilatzea.

V. Navak psikiatra eta alpinista, esan omen zuen: **«Durante la ascensión, la angustia personal se desvanece en un sentimiento cercano a la religiosidad cósmica, a una especie de pérdida en la grandeza terrorífica de la soledad alpina...»**

Eskalada, natura, gurekiko kontenplazio eta akzio espiritual bat dugu, puntu hauen sinbiosi estuan finkaturik.

Pareta izugarriak nahiz goimendietan eskalatu duzutenek, sentituko zenuketeen lehendabiziko momentutan duzuen larrialdi, hestutasun hori, barru lasaitasun sakon espiritual batetan transformatzen dela, egoera hau ezingo genuen fisikoki aztertu, bainan mendiak ematen duen erakartze horren barrenean dago.

Mendizale nabarmen askok aitortu dute egonaldi askotan, alpinismoa eta sortaldeko filosofiek harreman batzuk dutela, **«zen»** adibidez, bizi mota bat goratzen duela natura eta gurekiko armonia zaintzea, meditazioaren bidez, pasio gabeko biziaren bidez etab...

Denek dakizutenez, eguzki sartzearen baketasuna, izarrez betetako zeru gardena, VIgarren graduko pasu bat, filosofi hauekin konparatzea ez litzateke oso desbiratua egongo. Oso garbi dago alpinismoa bizitza ideal bat dela.



LIBROS y DISCOS

bodegon AZOKA

Mendiaren dimenzio estetikoa oso handia dugu, bainan dimenzio intrinsekoa hau utziaz, alpinistari ematen zaion kreatibitatea nabarmena da. Bide berri bat irikitzea, guztiz logikoa, alpinistak orduan, olerkigile, margolari edo eskultore baten papera hartzen du.

Gainera kontutan eduki behar dugu ez dela garrantzitsuena gora igotzea, heltzeko modua baino. Banguardistek **«clean climbing»** (eskalada garbia) defendatzen dute, expedizio astunak utziaz eta teknika alpina sartuz, mendi eta gizon artean dauden artifizialdade guztiak gutxituz.



Bainan dimentzio existentziala astertuz galdera batetara gatoz, bainan azken finean zeren bila dabil alpinista? Alpinistak gizonak bilatzen duena bilatzen du.

Alpinista, mendian bakarrik dago, ez dio ezerk estutzen, ez dago araurik, denbora ez dagoela esango nuke, bakarrik espazioa bere aurrean, berak proposatuko duena egingo du ezer gehiago.

Alpinismoaren azken esentzia ez da bakoitza bera izaten jarraitzea, bakoitzak norbera izatera heltzea baino. Askatasunaren lortze etengabea.

Mendiarekiko maitasuna, askatasunarekiko maitasuna da, izate askatasuna, eta alpinismoa, askatasun hau lortzeko bidea.

Jaime Alonso.

BASERRITARREN KUTXA

CAJA RURAL DE VIZCAYA

# VOLVER A KURUTZEBERRI

Desconocida, olvidada o quizás dejada un poco de lado en nuestras andaduras montañeras, recordamos esta agradable cumbre del Valle de Leniz.

Para su ascensión nos trasladaremos por Mondragón hasta Escoriaza y de aquí a la anteiglesia de Bolivar. Partimos junto al caserío Agoegi para alcanzar el portillo de Bizkerlatza en donde contemplaremos dos túmulos prehistóricos, tal como los describe Luis Peña en sus escritos.

Más abajo, a 200 m. a nuestra izquierda, divisaremos el valle de Degurixa en donde aún, hoy en día se mantiene el pastoreo y perduran las extensiones de hayedos. Rodean a este valle las cumbres de andarto, Maruatz, Aranguren y Atain.

Desde el amplio paso de Bizkerlatza, prácticamente sin perder altura y tras pasar por el collado de Apotzakarta llegaremos al paraje de Kargaleku desde donde dominaremos las tierras de Araoz y todo el macizo del Aloña.

Tras recrear la vista, tomamos de ladera el peñascal calizo que nos lleva al pie de la gran cruz que se alza sobre la cumbre del Kurutzeberri a 1.146 m. de altura.

Apata.



ZAHARTSU

CAFES
BAQUE

# *ETC. ETC. ETC. ETA ABAR*

Maiatzaren 18 eta 19-an 2. **«Rallie fotografikoaren»** argazki erakusketa egin zen. 14 parteartzaile izan ziren eta irabasleak honek: Jose Mari Aparicio, Juan Luis Garitonandia eta Jose Miguel Marin.

---

Uztailaren 6 eta 7-an 11. Mendi Argazki Txapelketa izango da. Nahi duenak parte har dezake, gaia mendia arlo guztietan izanik eta argazkiak zuri-beltzez edo kolorez. Sariak, beti bezala, ugari. Interesaturik bazaude etor zaitez elkartera, edo bestela, kalean kartelak jarrita egongo dira.

---

Elkarteko jaia Maiatzaren 5-an ospatu genuen. Durangotik eguraldi onaz irten genuen baina Larrauritik Jatarantz gindoazenean euria eta behelainoa agertu ziren. Hala eta guztiz loo tipo elkartu ginen gailurrean. Gatikara itzuli ondoren paella ederra jan genuen Emili eta bere taldeak egindakoa, eta bazkalondoan **«kirol»** probak ikusteko aukera eduki genuen: Saku karreran Perri izan zen irebasle eta irrintzi txapelketan Emili. Baina proba gogorrak sokatira eta pilota partidua izan ziren: Soka-tira **«El Leon del Duranguesado»** izan zen irabasle hiru **«feminaren»** aurka eta pilota partiduan Mungoitio eta Ugartek Jose Txintxurreta eta Perriri irabasi zioten bakarrik tantu bataitik. Arratsaldean ez ginen Gazteluatxera joan zeren eta oraindik euria zen.

---

Picos de Eupara zegoen irteera suspenditua izan da jende gutxi zegoelako. Arrazoia?.

---

Aurreko zenbakian hire artikulua (eskopeteruak) izenpe gabe agertu zen. Inprentako errua izan zen, baina hala eta guztiz parkatik Alberto.

Konturatuko zineten **«Euskal Errandone»-en** artikulurik ez dugula jartzen jadanik. Gipuzkoako birako artikuluak jartzen hasi ginen baina azkenean ez batak ez besteak jartzeko erabakia hartu dugu oso hotsak direla uste dugulako (horarioak...). Baina interesatuta bazaude elkartean ditugu **"Euskal Errandoneko"**fitxa guztiak

---

Eskalada ikastaroa ekainaren 22-23an Atxarten izango da, eta honen ondorez 28-29-30an Naranjo de Bulnes igoko dute (hego eta ipar aldetik). Animatzen bazara Wolpirekin hitz egin lehen bait lehen.

---

Uztailaren 3an hasita 15 eguneko kanpaketa Belaguan izango da gazteentzat.

---

Abuztuan, urtero bezala, Europatik zehar irteera bat antolatzen da. Aurten lehenengoz Suizara izan behar zen, baina nola ez zegoen arduradunik (nere uztez zerbait gehiago gertatu da hor) atzera egin dute.

Badago irteera bat Holandara, baina ez Alpinok antolatuta gazte talde batek baizik. Abuztuaren lan irten Brujasera (Belgica) egun bitan heltzeko. Hemendik Rotterdam ikustera gero Amsterdam-nen 8 egun pasatzeko. Egun hauetan hainbat irteera egin daitezke. (Voledam, Aalmeer, Alkmaar, Giethoon...) Etorria Luxenburgo edo Frantziatik izango da Anesy ezagutuz, eta askenekol egunak Rosasen pasatuz 23an etxera itzultzeko.

---

Ekainaren lehenengotan Pedro Contrerasek, bermeotarra, istripu bat eduki zuen Riglosen **¡Animo Pedro! ¡la lehen bait lehen osatzen den hanka hori!.**

LIBRERIA PAPELERIA
irakurri
Fray Juan de Zumarraga, 4 DURANGO

deportes
aitor




ASADOR
BAR MERENDERO



GOIURIA
DURANGO
TEL. 681 08 86

Especialidad:
BESUGO A LA BRASA
CHORIZOS CASEROS
CHULETILLAS AL SARMIENTO
Y CHULETAS A LA BRASA
Banquetes sobre encargo

Gráficas Amorebieta